

«EHIZTARI»

1.- Zerbait esan nahi luke
gaur bertsolariak
pixka bat tentatuaz
gure ehiztariak.
Argi egiten badit
nere memoriak
esango dizkizutet
hoien historiak.


2.- Deitu gabe esnatzen
dirade goizian,
eskopetak hartuta
hasteko ehizian.
Gogor saiatzen dira
ahal duten klasian,
edozer gauza ona
besterik ezian.

3.- Mendiz mendi emanez
makina bat pauso
harrapatu nahiean
oilagor ta uso
edo biligarroren
batzuak akaso,
besterik ez badago
enarai eraso.

4.- Oilagorrikan ezta
aparte usuak,
alperrikan emanak
sarritan pausuak.
Gure ehiztari jaunak
ez daude gozuak,
baina zer erru dute
enara gaixuak.

5.- Aipatu behar ditut
hoien pikardiak,
lotsaren arrastorik
ez dute erdiak.
Langak ireki eta
bialdu ardiak,
zapalduaz baratzak
eta belardiak.

6.- Hesiak zapalduta
alanbriak moztu,
ehiztariak behin ere
gauz onikan eztu.
Sagar, udare eta
tomatiak ostu.
Nola portatzen diran
ez leike sinistu.



7.- Sarritan joan gabe
oso urrutira,
harrituta egoten naiz
hoieri begira.
Txori txiki danari
tira eta tira,
txantxangorriaz ere
kupitzen ez dira.

8.- Ez errespetatzeko
txorien bizitza,
hoien kontzientzia
da gauza murrizta,
guztiangandik berdin
ez ninteke mintza,
baina hamarretik sei
horrela dabilta.

9.- Errespeto gutxiko
kristauan modura,
hurbildutzen zaizkitzu
etxe ingurura.
Lotsa gutxikin tira
nahi duten lekura,
perdigoiak sartuaz
leihotik barrura.

10.- Inor aspertu gabe
hasitako lanez,
ixildutzea hobe
nik ustie dedanez.
Amaitutzera noa
denari esanez,
errespeto pixka bat
izan gutxienez.

MARTZELINO
LEGORBURU
«ARGIÑANE»